

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

265/2020 Foru Agindua, urriaren 30ekoa. Guardiako udalerriko Carravacas aurkintzan, 22 poligonoko 472, 514, 516 eta 1116 lurzatietan, lurzoru urbanizaezinean sei telefono zutoin berri ezartzeko eta dagoen bat aldatzeko Telefónica de España SAUK sustatutako proiektuaren interes publikoa adieraztea

Telefónica de España SAK obrak egiteko udal lizentzia eskatu dio Guardiako Udalari, telefono linearen zutabe bat ordeztu eta beste sei zutabe instalatzeko Carravacas aurkintzan, Los Molineros-eko bidearen ertzean zehar, eraiki berri den ardo upeltegi bati zerbitzua eman dakion.

Guardiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago proiektu teknikoa, baita udal arkitektoak emandako txostena ere, eta bertan ageri da proiektuak eragina izango duela udalerriri horretako 22 poligonoko 472, 514, 516 eta 1116 lurzatietan, lurzoru urbanizaezin sailkatuta eta nekazaritza intereseko babes zona gisa kalifikatuta dagoen lursailean. Bat etorritz udalerriko indarreko arau subsidiarioetan ezarritakoarekin, baimenduta dago onura publikoko eta interes sozialeko erabilerak jartzea.

Igorritako txostenean jaso da zutabeak Hoyako arkeologia esparruaren mugen barruan daudela, eta espedientea Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzura bidaliko dela, obretarako berariazko baimena eman dezan.

Halaber, adierazi da uren zaintza arloan eskuduna den organoaren (Ebroko Konfederazio Hidrografikoa) baimena aurkezteko eskatu behar dela, bai eta AFAko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren aldeko txostena ere, obrek eragina dutelako Landa Bideen Erregistroan inbentariatutako bide batean.

Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari eskaeraren berri eman zaie, kasuan kasuko informazio ondorioetarako.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, 13.1. artikuluan honako hau ezartzen du lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestutako landa egoeran dagoen lurzoruari dagokionez: "Salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira".

Lurzoru urbanizaezinean, sektorean aplikatu beharreko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikokotzat jotzen dituen hornigaiak, ekipoek eta jardunek baino ez dute lekua, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Gainera, foru aldundiak interes publikoko deklaratu behar izan ditu ebazpen bidez, hogeitau eguneko jendauerreko izapidea bete ondoren.

Irailaren 10eko 206/2020 Foru Aginduaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion espedienteari eta jendaurrean ipintzeko 20 eguneko aldia hasi zen, ALHAOn argitaratu zen egunetik aurrera. Argitalpena 108. zenbakian egin zen, irailaren 23an. Horretarako emandako epearen barruan ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorrean ezarritakoaren ondorioz datorkio interes publikoa proiektuari. Haren 2. artikuluan ezartzen denez, "Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira" 23. 25. artikuluetan eta bat datozenetan aurreikusitakoaren arabera, uste da zerbitzu publikoaren eginbeharra dela eta bermatzen da "komunikazio elektronikoen kalitate egokiko zerbitzuak egotea jendearen eskura, Espainiako lurralde guztian (...)". Bestalde, 34.2 artikuluan hau xedatzen da: "komunikazio elektronikorako sare publikoak oinarrizko ekipamenduak dira (...). Haiek jartzea eta hedatzea interes orokorreko obrak dira.

Azaldutakoa bat dator 01-8091601 erreferentzia duen proiektuaren xedearekin, zeinak erantzuten baitio Bodegas Javier San Pedro Ortega-k egindako eskaerari, Guardiako La Hoyako bidea, z.g.an dauden instalazioetan FTTH zerbitzua emateko. Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Guardiako udalerriko Carravacas aurkintzan, La Hoyako bidearen bazterrean, 22 poligonoko 472, 514, 516 eta 1116 lurzatietan, lurzoru urbanizaezinean sei telefono zutoin berri ezartzeko eta dagoen bat aldatzeko Telefónica de España SAUK sustatutako 01-8091601 erreferentziako proiektuaren interes publikoa adieraztea, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.1) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatzeko udalaren baimen egokia lortzeko beharra, eta ez du aurretik juzgatzen udalak eman behar duen ebazpenaren edukia.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio, nahi izanez gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 30a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO